

Garuna, sare ordenatua

Garunaren itxura nahaspilatsuaren atzean sare-egitura geometriko eta ordenatu bat dago, *Science* aldizkariak argitaratu duen lan batek erakutsi duenez. Erresonantzia magnetiko bidezko irudi-teknika aurreratuekin gizakiaren eta beste lau primateren garunak aztertu dituzte, eta kasu guztietan oso antzeko egitura aurkitu dute. Ikusi dute nerbio-zuntz paraleloz eta perpendikularrez osatutako egitura sinplea duela garunak funtsean. Zuntz horiek elkarrekin gurutzatzen dira, oihal bateko zuntzak bezala.

ARGAZKIAK: © M. D. VAN WEDEEN, MARTINOS CENTER eta DEPT. OF RADIOLOGY/MASSACHUSETTS GENERAL HOSPITAL/HARVARD U. MEDICAL SCHOOL.



SAREAN+



